

# **DIRUAREN BALIO MORALEN ETA ELKARTRUKE-MOTA DESBERDINEN KONTZEPTUALIZAZIOA**

**Kepa Fdz. de Larrinoa**

**Antropologian lizentsiatua**

Pentsalari neoklasikoen eritziz, ekonomiaren azterketa merkatuaren azterketa da. Merkatuak berezko autonomia daukela ulertzen da, eta ideia hau abiapuntu izanik, gizarte-bizimodutik at, aparteko bizitza bailuan estudiatzen da ekonomia. Antropologoek jarrera, oster, desberdina da. Antropologoak gizartearen ekonomiari begiratzen dionean, hauxe aztertzen du: gizarte horren erakunde sozialen, elkarte edo zatiketa politikoen, araudi legalen, eta praktika eta ulerkera ekonomikoen arteko loturak; baita loturen funtsa ere.

---

## Aristotele-ren ekonomia soziologikoa

---

Aristotele-k ekonomiaz ere ihardun zuen bere izkribuetan, eta erabili zuen ekonomiaren nozioak nolabaiteko arrakasta izan zuen, ondo oinarrituta ez egon arren. K. Polanyi-k (1957) aspaldian aitortu zuenez, bi arazo ditugu garrantzitsu Aristotele-ren ekonomian" (I) salerosketaren prozesuaren bitartez dirua egitea, eta (II) prezio egokia edo zuzena. Eta bere pentsamendu ekonomikoak, ekonomiaren eta gizartearen arteko harremanen azterketan oinarrituta egotean, interes handia sortu du ekonomiara hurbildu diren antropologoengan.

Gaur eguneko ekonomia neoklasikoaren ideia nagusiak erreferentzi puntutzat hartuta, Aristotele-ren pentsamendu ekonomikoak batere funtsik ez dauka, zeren eta pentsalari neoklasikoen eritziz ekonomiaren azterketa merkatuaren azterketa baita da. Merkatuak berezko autonomia daukala ulertzen da, eta, berau abiapuntu izanik, gizarte-bizimodutik at, aparteko bizitza bailuan, estudiatzen da ekonomia. Antropologoaren jarrera, berriz, desberdina da. Antropologoak gizartearen ekonomiari begiratzen dionean honako hauek aztertzen ditu: gizarte horren erakunde sozialen, elkarte edo zatiketa politikoen, araudi legalen eta praktika eta ulerketa ekonomikoaren arteko loturak; eta baita loturen funtsa ere.

Aristotele-ren ideia ekonomikoak ulertzeko, hiru kontzeptu behar ditugu kontutan hartu: (I) **komunitatea**, (II) **ase, aski** edo **nahikotasuna**, eta (III) **justizia** edo **zuzenbidea**. Nozio hauek

ematen zioten Aristotele-ren teoria ekonomikoari pisu soziologikoa. Polanyi-k modu honetara komentatu du filosofo greziarraren teoria ekonomikoaren oinarri soziologikoa: jende-komunitate batek bere burua mantentzeko, eta hala segitzeko, behar duen salerosketa **hori**, edo tratu **hori**, "naturala" eta "zuzena" da.

Komunitatearen barruan zein komunitateaz landa egiten diren elkartruke ekonomikoen xedea komunitatearen barne-beharrak berdintzea denean, orduantxe da "naturala" salerosketa; zilegia, alegia. Hortaz, ondasunen trukea zerbitzuen trukea da, truke hau ase edo nahikoa izatearen oinarria izanik. Eta elkarlaguntza bezala ulertzen da, bidezko prezioak jarritz praktikatzeko delarik. Elkartruke-mota honetan irabazirik ez dago. Aristotele-ren eritziz, komunitatearen "nahikoa izateari" eusteko merkataritza zen "naturazkoa", bestelako merkataritza "naturaren kontrakoa" zelarik (ikus Polanyi 1957:96-100).

Banaketa honetatik abiatuz, bi prezio-mota bereizi zituen Aristotele-k: alde batetik, negoziatutako edota irabazkia daraman prezioa; bestetik, prezio justua, bidezkoa, zuzena edo dagokiona. Bereizi ere, Aristotele-k areago bereizi zituen gizartearen harreman ekonomikoaren artean: bateko, prezio justua dakarten harreman ekonomikoak; eta besteko, irabazkia ekoizten duten merkatuko harremanak. Bestela esanda, Aristotele-k, alde batetik, elkartrukean oinarritzen diren harremanak eta prezioak, eta beste alde batetik, merkatutik bideraturiko harreman ekonomikoak eta prezioak bereizi zituen. Lehenengo kasuan, prezioak naturalak dira, elkartrukeko

ohiturak jarri ditu eta. Bigarrenean, ordea, prezioak naturaren aurkakoak dira, irabazia bait dute helburu.

Askok azaldu dituzte Aristotele-ren ideia ekonomikoen akatsak eta bere azterketaren okerrak. Hala izanik ere, puntu baliotsu batean oinarritzen da: gizarteko harremanak kontutan hartzeke, ez dago ekonomiaren azterketa sakonik. Hain zuzen ere, antropologia ekonomikoak hemendik abiatzen du bere analisia.

---

### **Subsistentziaren etika eta nekazarien ekonomia "zuzena"**

---

(nekazal ekonomian) *Ez du ardura nolako arriskutsua den nekazarien jabegoaren handinahiak, subsistentzia mehatxatzen duten uzta komertzialak lantzeari uko egiten dio laborariaren razionalitateak* (Michael Moerman)

J.C. Scott-ek (1976) hego-ekialdeko Asian aztertu ditu nekazalgora eta hango nekazal ekonomia. Baita nekazarien esapide politikoak eta kognitiboak ere. Autore honek "subsistentziaren etika" deritzonaren eduki "moralean" edo bidezkoan daratza bere argudioa. Entseiuaren auresolasean zera idatzi du: "ekonomiaren arloan hasi eta kulturaren eta erlijioaren esparruan amaitu behar du nekazalgoraren ekonomia bidezkoaren azterketak" (VII.or.)

Baina zertan datza "subsistentziaren etika" delako hau? Zehatza du erantzuna Scott-ek: laborariaren gizarte aurre-kapitalista gehienetan suertatzen den beldurrean datza subsistentziaren etika. Alegia, balizko galeraren eta galeratik lezozkeen jan-murrizketaren

eta eskasiaren beldurrak bideratzen ditu nekazarien akordio sozialak eta, laborariak justizia sozialaz eta elkarlaguntzaz dauzkaten kontzeptzioak. Hauxe da, beraz, subsistentzia-printzipioaren itzulpen ekonomikoa: "galeraren posibilitateak bultzatuta, uztaren maximizazioa baino, porrota minimizatzea nahiago izaten du maizterrak" (7. or.).

Etorri ere, hastapen honetatik badator pertzepzio normatibo edota moral bat, Scott-en ustez. Hau da, nekazarien iharduera ekonomikoa, elkarlaguntza soziala, jokabide politikoak eta esplotazio eta justiziaren nozioak "subsistentziaren eskubidean" oinarritzen dira. Ezin dugu hedatu, horratio, subsistentzia-etika hau eskualde eta laborari-talde guztietara. Honako salbuespena egiten du Scott-ek: lur asko, familia gutxi, produzio eta uzta fidagarri, nekazaritzaren kanpoan lanpostu aurki dezaketen, eta irabazpen handiko laborariak ez dute oinarritzen beren iharduera ekonomikoa subsistentziaren etikan.

Ondorioz, pertzepzio-mota bi dira abiapuntu nekazal subsistentziaren moralean: (1) aldez aurreko jarrera ekonomikoa subsistentziari begira garatzen da (gehienbat, produkzioaren ziurtasun eta zuhurtasunaren printzipioa bazterreko eta jabego txikiko nekazarien kontua da), eta (2) ahalik eta irabazpen handienaren bila inbertitzea eta lur-sailen eman-kortasunaren maximazioa, berriz, ez dira lehendabiziko helburu ekonomikoak. Senideen arteko harremanak, auzoen eta lagunuen arteko elkarlaguntza, herrikoen arteko auzatasuna eta kanpokoekiko harremanak, jabeen eta maizterren arteko harremanak eta, baita ere, zenbait

nozio kultural, hala nola "justiziaren" eta "berdintasunaren" nozioak, "subsistentziaren etika" delakoaren bidez interpretatzen dira. Bestela esanda, auzatasunaren normak, truke-balioa eta esplotazioaren esperientzia "subsistitzeko eskubideak" definitzen duen kontzeptualizazio-esparruan ulertu behar dira.

Scott-ek honelaxe segitzen du: subsistentziaren etika eta herrian herriko auzatasunaren akordioei eraso zien kolonialismoak, bereziki Scott-ek berak aztertutako Asiako hego-ekialdean kapitalismoaren sarrerak. Erasoeak, bestalde, erresistentziak eta erantzunak jaso zituzten:

*Kapitalismoaren bilakaera, nekazal harremanen komertzializazioa eta estatu zentralistaren hazkuntza laborarien locus historiko bihurtu ziren gaurko denboraldian; zeren eta indar historiko eta garrantzitsu hauek subsistentziaren ihardunbideak eta tradizioaren harreman sozialak aldarazi bait zituzten, honakoa ekarri: kontratuak, merkaturak eta lege baterakorrak. Wolf-ek ohartarazi duenez (Peasant Wars of the Twentieth Century liburuan XV. or.), ondorioa hau da: arrisku ekonomikoei aurre egiteko asmoz nekazariak instituzionalizatu duten kontestua ukatzeagatik matxinadak sortaraz edo tirabirak gerta daitezke (Scott 1976:189)*

Kapitalismoaren sarreraren ondorioz, nekazarien ondasunak eta jabegoak kontrolatzeko gogo eta prozesu serio bat bideratu zuten estatu-instituzioek: zergak eta bestelako neurri fiskalak. Eta zergen inposaketari aurre egiteko, erresistentzia-era fisiko zein sinbolikoak erabili ziren. Scott-i

jarraikiz, gobernamentu koloniala ez bezala, armada eta polizia gabe eraso zuen nekazalgoak kolonialismoaren presentzia administratiboa. Herri bakoitzeko "herriko etxeak" ("le maison communale") gordetzen zituen zergen eta lur-sailen balioaren datu zehatzak. Informazio hau deuseztatuz estatua apurtu nahi zuten laborariek; estatua deusezturik zergak nahi zituzten suntsitu (Scott 1976:125).

Zergak zekarten indarkeria esanguratsu eta ikasgai da, zeren eta, zergen bitartez estatuak jasotzen zuen dirua gutxi izan arren, zergak bilakatu bait ziren laborarien aurrean "estatuaren zapalkuntzaren sinbolo nagusi".

Artikulu honen hasieran Aristotele-k ekonomiaz idatzi zituen izkribuetara zuzendu nintzen. Aristotele aspektu funtsezko askotan oker ibili bazen ere, puntu garrantzitsu batez ihardun zuen: ekonomiaren eta gizartearen arteko harremanez. Lotura hauek nolakoak diren aztertzea abiapuntu du antropologia ekonomikoak. Saio labur honen bigarren atal honetan antropologia ekonomikoak bere gain hartu duen beste ezaugarri esanguratsu batez ari izan naiz laburki: agente ekonomikoen esperientzia sozialaz. Scott-en liburua aipatuz, nekazarien esplotazioaren esperientzia subjektiboa zer nolako koordinadeen bidez neur daitekeen honatu nahi izan dut. Scott-en argudioaren harira, honako hau azpimarratu dut: "hurrupakuntzaren sentsazio kognitiboa" subsistentziaren etikak markaturiko ildotik abiatzen da. Orduan, antropologia ekonomikoak honako bereizketa operatiboa egiten du: alde batetik egitura ekonomikoak ditugu; bestetik, egitura hauen esperientzia zuzena dugu. Bien arteko

elkartasunak eta desloturak eguneroko ariketan nahiz esparru ideologikoan aztertzen saiatu dira zenbait antropologo azken urteotan zehar.

---

### **Erdi askotako ekonomiatik erdi bateko ekonomiara**

---

Hirugarren atal bat zabaldu behar dut saio honetan. Orain arte honako nozioak aipatu ditugu: "elkartruke naturala" eta "natura aurkako elkartrukea", baita, "ekonomia zuzena" edo "bidezkoa" eta "ekonomia ez-zuzena" edo bidezkoa ez dena ere. Bereizketa hau oso gogorra dela azterketa askok erakutsi dute, eta, beraz, espresio hauek elkarren arteko oposaketa bat osatzen dutela ez dugu ulertu behar. Hau dela eta, Bohannan-ek (1959) Nigeriako Tiv jendearen ekonomiaz egin zuen estudioa aipagarri dugu. Bere analisiak bi aldi historiko aztertzen ditu: kontestu aurrekoloniala eta denboraldi koloniala. Bohannan-en xedea ondokoa izan zen: Tiv-en artean diru europarraren agerketak zer nolako ondorenak ekarri zituen Tiv herriaren ekonomiara.

Bohannan-ek dioenez, gure gizarte industrialak aztertu dituzten ekonomistek diruak hiru ezaugarri gutxienez badituela argudiatu dute: (1) elkartrukearako bidea ematen du; (2) ordaintzeko modu bat da; eta (3) akordioko balio bat ordezkatzeko du. Antropologoek mendebaldeko gizarte industrialak ikasten ez dituztenean, ordea, ez dute aurkitzen objektu bakar bat, gure diruaren antzera arestion aipaturiko hiru ezaugarri eta funtzioak elkartzen dituena. Gizarte hauetako kontua hauxe da: objektu batek hiru funtzioetarik bat betetzen du, beste

objektu desberdin batek beste funtzio diferente bat betetzen duelarik. Lehenengo kasuan (mendebaldeko gizarte industrialen diruaren kasuan, alegia) "xede orokorraren dirua" (general-purpose money) dugu. Bigarren kasuan (funtzio bakoitza betetzeko gauza edo objektu bat dagoen kasuan), berriz, "xede bereziaren dirua" (special-purpose money) dugu<sup>1</sup>. Xede orokorraren dirua kasu gutxitan ezagutzen zen Afrika aurrekolonialean. Xede bereziaren dirua, haatik, oso ezaguna eta erabilia zen.

Bohannan-en ustez, Tiv herriaren ekonomia aurrekoloniala "erdi-askotako ekonomia" zen. Ekonomia-mota hau modu honetara deskribatu du Bohannan-ek: "gizarte bateko ondasun trukagarriak elkarren eskusibo diren arlo bitan baino gehiagotan zirkulatzen dira, arlo bakoitza moralezko baloreek eta instituzionalizazio desberdinek bideratuta egonik" (Bohannan 1959:124).

Tiv herriaren erdi-askotako ekonomian hiru arlo zeuden. Bateko, "yiagh" izenekoa dugu, subsistentziarako behar ziren ondasunak; ondasunen norabidea libre zen, zirkulazioa kontrol gabez suertatzen zela. Biko, "shagba" izeneko arloa zegoen, prestigio eta ospeko arloa zena. Ondasunen elkartrukea ez zen merkatuan gertatzen, zeremonian eta erritualean baino. Esan beharra dago arlo hau bere kasa zebilela, subsistentziaren arlotik aparte hain zuzen ere. Letoi-pusketak ziren trukearen neurria eta, beraz, "shagba" arlo honen barruan letoi-pusketek gure diruaren xede denak hartzen zituztela esan daiteke. Dena dela, elkartrukearen arlo honetatik at ez zuten letoi-pusketek inongo baliorik. Orduan, arlo honen

barruan bakarrik hitz egin dezakegu xede orokorraren diruaz; Tiv herriaren ekonomia osoan eta euren elkartrukeen sistema osoan lekuraturik, xede bereziaren diruaz hitz egin behar dugu.

Eta hiruko, Tiv herriaren ondasun trukagarrien arlo gorenak emakumezkoen eta seme-alaben gaineko eskubideak bideratzen zituen, ezkontzak eta senidetasunak markatzen zutelarik balioa. Kasu honetan, lehen aipaturiko diruaren xedeak betetzen zituen objekturik edo artikulurik ez zegoen.

Badago Bohannan-en saioan beste argudio bat, honako galdera erantzun gura duena: nola kontzeptualizatzen dute Tiv-ek arlo desberdinei dagozkien artikulua edo ondasunak elkartrukatzea? "Lekualdatzeak" ("conveyances" edo kategoria bereko ondasunak elkartrukatzea) eta "egoera-aldatzeak" ("conversions" edo kategoria desberdineko ondasunak elkartrukatzea) bereizten ditu Bohannan-ek. Honen ustez, argi eta garbi bananduta zeuden elkartruke-mota hauek Tiv-en artean. Lekualdaketetan eta egoera-aldaketetan bazeuden, halaber, jokabide moralak eta portaera jakinak. Oro har, moralki ikusita lekualdaketak neutroak ziren, bereziki subsistentziaren mailan: arlo honetan eritzi moralik ez zen ematen. Egoera-aldaketek, alderantziz, balio moral sendoak ekartzen zituzten. Bi egoera-aldaketa moeta zeuden: beheko kategoriatik goiko baterako mugimendua segitzen zutenak; eta goiko kategoriatik behekoak. Eta norabide hauek kontutan harturik, Tiv-ek "egoera oneko elkartrukeak" eta "egoera txarreko elkartrukeak" bereizten zituzten, honako arrazonamendu ekonomikoa agertuz:

*Onuragarri da eta irabazkina dakar norberaren ondasunak inbertitzeak, hau da, norberaren ondasunak goiko kategoria baten arlora igarotzeak: "egoera oneko elkartrukearen" bidez subsistentziaren ondasunak prestigio eta ospeko ondasun bilakatzea eta ospeko ondasunak emakumezkoen eta haurren gaineko eskubideak izatea dira Tiv-en xede ekonomikoak. Hiztegi ekonomikoa erabiliz gero, hauxe dira Tiv-en egoera-aldaketak: maximi-zazioaren azken maila (Bohannan 1959:129).*

Tiv-en artean suertatzen zen diruaren erabilpenaz azterketa bat egin eta honela laburbiltzen du Bohannan-ek: ondasunen egoera-aldaketa gertatzeko, letoi-pusketek paper ikaragarria jokatzen zuten; hala eginez, diruaren xede batzu betetzen zituzten. Ez denak, ordea, zeren eta prestigio eta ospeko arloan bakarrik operatzen bait zuten diruaren xede orokorraren funtzioaz. Areago, beste egoeretan (alegia, prestigio eta ospeko arlotik at) letoi-pusketek diruaren funtzio bat bakarrik betetzen zuten: ordainketarena, hain zuzen ere.

Orduan, Bohannan-ek bi diru-mota aurkitu ditu denboraldi aurrekolonialeko Tiv-en jokabide ekonomikoan: (1) xede orokorraren dirua, ospeko arloan; eta (2) xede bereziaren dirua, elkartruke batzuren barruan, batez ere egoera-aldaketaren kontestuan, elkartruke ekonomikoaren bi arlo (edo hirurak) batzen zirenean gertatzen zena.

Kolonialismoaren ekonomia kapitalistak eta diruaren erabilpenak zer nolako ondorioak ekarri zituzten Tiv herriaren ekonomia tradizionalera aztertuz amaitu du bere izkribua

Bohannan-ek. Honelaxe labur dezakegu bere jarrera: kolonialismoak sartu zuen moneta-sistemak Tiv-en ekonomia aldarazi zuen; erdi-askotako ekonomia erdi-bakarreko ekonomia bilakatu zen, Tiv-en arteko elkartrukearen hiru arloetan mende-baldeko dirua nagusitu zenean.

Geroago egindako azterketek esan dute konklusio honekin oker zebilela Bohannan, autore honek ez bait zuen kontutan hartu maila praktikoaren eta maila ideologikoaren bereizketa. Beste modu batez esanda, agente ekonomikoek kontestualki definitzen dituzte beren elkartruke ekonomikoak. Hau da, kontestuak markatzen du definizioa, ardura gutxikoa delarik zein objektuk edo gauzak markatzen duen ondasunaren balioa.

Puntu honetara helduta, parentesi bat ireki behar dugu, eta esan antropologia ekonomikoak luze eztabaidatu dituela bi arazo hauek: (1) ba ote dagoen moneta-elkartruke gabeko bizitza ekonomikorik; eta (2) diruaren bitartez egindako transakziorik suertatzen baldin bada gizarte aurrekapitalistetan, diru hau ba ote den "xede bereziaren" dirua soilik. Eztabaida hau garrantzitsua da zeren eztabaidaren atzetik aurreritzi eta eredu teoriko-analitiko desberdinak bait datoz. Dakusagun.

Mendebaldekoak ez bezalako gizarteak eta jokabide ekonomikoak aztertu dituzten antropologo batzuk honako bereizketa binarioak egin dituzte, bereizketaren elementuen esanahia esparru bitan bananduz eta parekatuz:

I	II
naturala	natura-aurkakoa
oparien trukea	merkantzien truke
erabilpen-balioa	truke-balioa
erdi-askotako	erdi-bakarreko elkartrukearen arloak
ekonomia eta gizarte aurrekapitalista	ekonomia eta gizarte kapitalistak

Ikerlari batzuk kolonialismoak eta beronek ekarri zuen ekoizpide kapitalistaren moneta-sistemak lehenengo zerrendako harremanetatik bigarren zerrendako harremanetara igarotzea sortarazi zuela argudiatu dute (ikus goiko eskema), bi zerrendak elkarren eskusibito zirela ulertzen zutelarik. Tiv-en adibidean ikusi izan denez, Bohannan-en analisisa berrinterpretatua izan zenez geroztik, eta M. Godelier antropologo marxistak azaldu duenez, ez da hala.

Kontestu soziala zein zen, batzutan diruaren modura eta bestetan opariaren modura erabiltzen zituzten Tiv-ek txanpon europarrak. Beraz, diruak ez zuen bortxatu, hasieran behinik-behin, Tiv-en subsistentziaren arloa, Tiv-ek balio desberdina (oparia edo dirua) ematen bait zieten txanponei elkartrukearen egoeraren arauera. Godelier-en (1977) analisisan gatzaren produkzioa, trukea eta zirkulazioa da gako Ginea Berriko Baruya jendearen ekonomia ulertzeko: komunitatearen barruan gatzaren elkartrukeak erabilpen-balioa hartzen



du, komunitatearen kanpoko elkartrukean merkantzia-balioa hartzen duelarik. Beraz, artikulua bat berak (txanponek ezik beste edozerk) balio ekonomiko desberdinak izan ditzake (diruarena ere bai), kontutan hartzen baldin badugu gizabanakoek nola definitzen duten beren elkartrukearen arlo soziala.

Ez dago, orduan, oparia/dirua; erabilpen-balioa/truke-balioa; gizarte-harreman aurrekapitalistak/gizarte-harreman kapitalistak; bizimodu naturala/natura-aurkako bizimodua neurtze eta parekatze garbirik. Zuzenbidez dirua edota ondasun-akumulazioa negatiboki hauteman da kultura batzutan, bestetan neutroagoki ikusten delarik. Areago, ekoizpide kapitalistaren harreman sozialetan oinarrituta ez dauden zenbait kulturatan ondasun-akumulazioa eta merkantzien elkartrukea moralki zilegi da eta positiboki onartzen da komunitatearen barruan (M. Bloch eta J. Parry (1989) antropologoek antologia labur bat hornitu dute gai honetaz).

---

### **Diruaren balio moralaren kontzeptualizazioa eta materialismo historikoa**

---

Antropologia ekonomikoak ikerketa-arlo desberdinak hartu ditu bere gain. Orain arte entseiu honetan honako ezaugarriez ari izan naiz: (1) ekonomiaren eta gizartearen arteko harremanak nolakoak diren garrantzia handikoa da; (2) alde batetik ikerlarien erreferentzi puntu "zientifikoak" eta abstrazio ekonomikoak ditugu, beste alde batetik jokalaria sozialek beren gizarte-harremanez duten esperientzia dugu, biak

elkarrekin aztertu beharrean gaudelarik; eta (3) iharduera ekonomikoa, beronen definizio moralak eta ideologikoa eta, elkartrukeko kontestu soziala, bereiztu behar dira, zeren eta, hala eginez, elkartrukeen zuzentasuna agente sozialek juzkatzeko dutela aurkitzen bait dugu, elkartrukea batzutan ontzat hartuz, eta beste batzutan ez onartuz. Gizabanakoen gogortasun edo erresistentziaren estrategia berezi biz hitz egin behar dut atal honetan: Malaysia-ko Langkawi irlako bizilagunen jokabideaz<sup>2</sup> eta Boliviako alderdi bateko meatzarien sinesmen eta erritoez<sup>3</sup>.

#### *Komunitatearen Ereduek, diruaren Perzepzioa eta Beronen Eraldakuntza*

*Gizonezkoek arrantzatu eta dirua irabazten dute. Hau etxetik at eta truke-harreman direla medio suertatzen da. Halaber, etxean gertatzen diren eta odolokideen artean ematen diren harremanen aldean antitetikoak dira truke-harreman mota hauek. Jeneroaren sinbolismoaren bitartez ulertu ahal da oposaketa hau: alde batetik, etxeko batasunaren eta, bestetik, etxerik etxe emaniko truke ekonomikoak errepresentatzen duen zatiketaren oposaketa. Dirua nola erabiltzen denaren arauera, hauxe ikus daiteke: etxeko emakumezkoak ararteko dira. Gizonezkoen diruak etxeari erasotzen dio. Hala ere, elkartruke-harremanaren esparrutik etxeko kontsumoko ondasunen arloa dakarte emakumezkoek dirua. Emakumezkoen sukaldaritzako zenbait metafora erabiliz dirua transformatzen da, diruak etxera dakarren mehatxua desagertzen delarik (Carsten 1989:118).*



Antropologia ekonomikoaren ildotik abiatzen den entseiu honek diruaren balio moralen eta elkartruke-mota desberdinen kontzeptualizazioez dihardu. Tiv-en ekonomiaren aspektu batzu aztertu ditugu arestian, eta honako jokabide zabalak ikusi: (1) elkartrukatu asmoz subsistentziaren esparrutik beste batera eramaten diren artikuluek (subsistentziaren esparruan moralki neutroak direnek) ondasuna sortarazten dute; (2) sortzen den ondasun berri hau komunitateak onartua eta ondo ikusia eta positiboa da. Alderantzizkoa ere gertatzen da: harremanen esparru batzutan truke-balioa duten ondasun, artikulua eta gauzek erabilpen-balio neutroaga izan dezakete subsistentziaren gizarte-harremanaren arloaren barruan, hau da, etxekoen artean edo komunitatean barnean erabiltzen direnean. Diruaren eta elkartruke-motaren balio morala definitzerakoan, harreman sozialen kontestuak garrantzia itzela dauka azpimarratu genuen. Harremanen egoerarekin eta elkartrukearen kontestuekin batera, kontzeptualizazio sinbolikoen paper handia jokatzeko dute tratua eta trukeen eritzi moralen aldaketan. Carsen-en lana beronen adibide ederra da. Aipatu dugunez, Malaysia-ko arrantzale-komunitate baten jokabide ekonomikoak ikertu ditu. Haren argudioaren laburpena hau da: gizonezkoek etxetik kanpo lan egin eta dirua irabazten dute; komunitatearen eritzi, diru honek arrisku handia dakar etxeko ekonomiara, eta arrisku honi aurre egiteko, komunitateak diruaren balio negatiboa transformatu behar du; transformazio hau sinbolikoki burutzen da, emakumezkoak ararteko izanik. Ikus dezagun xehetasun handiagoz zer gertatzen den Langkawi irla ekonomian.

Irla honetan emakumezkoek etxaldeak ematen duen lana hartzen dute beren gain. Areago, nahiz eta emakumezkoek zein gizonezkoek nekazal lanetan, arroz-soroetan eta barazki-ortuetan elkarrekin ihardun, behar hauetarako lan-indarra emakumezkoek antolatzen dute. Egoera honi Langkawi-ko ekonomian arrozak jokatzeko duen paper ikaragarria erantsiz gero, emakumezkoen aginpide eta nagusigo nabaria begibistara dator (ikus Carsten 1989:122). Arrozaren eta barazkien hazkuntza etxaldeko subsistentziaren produkzio eta kontsumorako bideratzen da, behar den lan-indarra herriaren barruan biltzen delarik familiako edota komunitateko harremanen bidez.

Arrantza, berriz, gizonezkoen iharduera ekonomikoa da, komertzioaren bitartez burutzen dena. Lan-indarraren banaketari eta jeneroen bereizketari elkartzeko sinboliko bana erantsi zaie. Honen ondorioz, arrantza "etxaldearen", "komunitatearen" eta "famiariaren aurkako" harreman ekonomiko bilakatzen da (Carsten 1989:128). Jokabide kognitibo hau dela eta, elkartrukeko harremanak komunitatearen kanpoan izatera jo dute arrantzale malaysiarrek: arrotzekin egiten dituzte beren arrantz-tratua ekonomiko eta komertzialak, alegia.

Beraz, alde batetik "banakoa", "kanpotarra" eta "gizonezkoen dirua" ditugu. Beste alde batetik, herriko "komunitatea", "etxaldea" eta "senidetatuna" daude. Kutsatu egiten du lehenengo hirukateak bigarrena. Hau da, kanpoak barneari erasotzen dio arrantzaleek dakarten dirua dela medio. Irlako komunitatearen baloreen kutsadura edo eraso honi Langkawi-

-tarrek nola buru egiten dioten ikustea garrantzia handikoa da.

Komunitatearen baloreak (hots, senidetasunaren bidez burutzen den etxaldeko subsistentziaren produkzioa eta kontsumoa) kutsatzen dituen diruaren pertzepzio negatiboa neutralizatu behar da. Xede honi atxekitzeko, dirua "hezi" eta "garbitu" egiten da (Carstens-ek "sozialize" eta "purify" dio) "etxaldearen" eta emakumezkoaren metaforak erabiliz. Diruak komunitatera dakarren balore ezezko eta arriskutsua aldaraz dadin kontzeptualizatzen diren metaforarik indartsuenak "jana" eta "kuzina" dira.

Bi arrazoirengatik da aipagarri Carsten-ek egin duen azterketa: lehenengoz, diruaren pertzepzioa jeneroaren sinbolismoarekin harreman dagoela darakus; bigarrenez, "komunitatearen" nozioa balantzan ezartzen du. Azken baieztapen honetaz ihardun behar dut oraingoan.

Carsten-ek bere datuak azaldu eta honela amaitzen du: bi komunitate-eredu lanean ari dira Langkawi-n. Gizonezkoen ala emakumezkoen jarrera kontutan hartuz gero, diruaren eta komunitatearen pertzepzio desberdina aurkitzen dugu, gizonezko bat ala emakumezko bat, elkarren ondoan zeharo desberdinak direnak. Beste modu batez esanda, diruaren esangura emakumezko bat eta diruaren esangura gizonezko bat ari dira jokoan. Areago, esangura bakoitza komunitate-eredu desberdinean oinarritzen da: komunitate-eredu bat emakumezkoa da, bestea gizonezkoa delarik (ikus Carsten 1989:134-139). Ondorioz, elkartruke ekonomikoak komunitate-eredu batean ala bestean kontestaturatzen ditugunaren arauera, diruaren

pertzepzio bakar bat ez dagoela antzematen dugu Malaysiako irla honetan.

*Materialismo Historikoa eta Ekonomia Naturalaren Desbi-deraketak.*

*Deabruaren sinesmena ez dugu itsumen modura ulertu behar, ezta eguneroko iharduerak nahitaez gidatzen dituen arau bezala ere. Deabruaren sinesmena, berriz, modu honetara ulertu behar da: kulturaren osotasunaren kontrako mehatxuei buruz kulturak berak daukan kontzientzia bezala; hau da deabruaren sinesmena kulturak berak bere buruaz daukan kontzientziaren irudi argigarri modura ulertu behar dugu. Gisa honetako irudiak ezin du sartu gizarteko "toki" estruktural-funtzionalean makinako pieza bat balitz bezala. Deabruarekin proletal tratua, bestela, "testu" mota bat da, zeinaren bitartez kultura batek bere historia askatzeko ahaleginak agertzen bait ditu. Bere historia berrerosteko, hauxe egiten du kulturak: orainaldiko tirabirei begira iraganaren signifikantza berrazalduz (Taussig 1980:96).*

Taussing-en aipu honek Clifford Geertz-ek (1973) Bali-ko oilar-burrukaz idatzirikoa saio hermeneutikoaren antza dakarkigu. Hala ere, beste tradizio akademiko batean kokatu behar dugu Taussing-en etnografia: materialismo historikoan, hain zuzen ere. M. Taussig antropologo australiarrak Bolivia-ko meatzari-komunitate batzuren sinesmen eta erritoak aztertzen ditu. Sinesmen eta errito hauetan deabruaren irudiak paper handia du.

Ikertzaile honen argudioa zera da: "bizimodu eta ekoizpide bat beste baten lekuan jartzen ari da, eta deabruaren alienazio-prozesu gogor bat errepresentatzen du modu dramatikoz" (Taussig 1980;17). Argudioa honakoan datza: erabilpen-balioaren (hau da, gizarte aurrekapitalista, ekonomia zuzen edo bidezko, elkarrekikotasunaren) eta truke-balioaren (hau da, gizarte kapitalista, merkatuko ekonomia eta merkantziaren fetitxismoaren) artean bada erlazio antitetiko bat. Autore honi jarraikiz, deabruaren sinesmenek eta erritoez proletario berrien kulturak merkantziagintzari buru egiten diola iradokitzen dute. Bi ekoizpideak elkarren kontrajarriak izanik, deabruaren sinesmenek eta praktikek ekintza politikoa ere bultza dezakete, hala eginez bi ekoizpideen arteko oposaketa gaintzen delarik.

Meazuloko "osaba"rekin<sup>5</sup> meatzariek sinatzen dituzten kontratuen interpretazioa, M. Taussig-ek aipaturiko liburu honetan zehar egin duena, orijinal, interesgarri eta iradokarri dela aitortua da. Hala bada ere, antropologo batzuk argudiatu dute ezen oker zirela Taussig-ek bere adierazpena osatzeko erabili dituen zenbait datu etnografiko eta aurreritzi teoriko<sup>5</sup>. Ikus ditzagun kritika honen ezaugarririk garrantzitsuenak.

Lehenengoz, Aristotele-ren, tomismoaren jarraitzaileen, eta Marx-en zenbait izkributan modu desegokiz oinarritu direnen aurreritzi berberatik abiatu da Taussig: elkartrukeari nolabaiteko "naturaren kontrakotasuna" dagokio; hau da pentsalari hauek diruaren erabilpen bidezko edo zuzen bat badela uste dute, eta diruaren erabilpen bidezko honi diruaren beste

erabilpen bat kontrajartzen diote, gaiztoa eta onartezina dena.

Bigarrenez, Andeetako eskualdeetan zehar merkatuak eta diruaren erabilpena egon bazeuden kolonizazio espainiarraren aurretik; beraz ezin da kasu honetan argudiatu gizarte aurrekapitalisten elkartrukeetan dirua erabiltzea izan zenik kolonialismoak edo kapitalismoaren sorkuntzaren ondorio zuzena.

Hirugarrenez, zenbait modu desberdinez kontzeptualizatzen da diruaren erabilpena Andeetan zehar. Taussig-ek ikertu dituen komunitateetan diruaren erabilpenak ezezko jarrera dakarrela erakusten du. O. Harris-ek eta M. J. Sallnow-ek Andeetan ikertutako komunitateetan, berriz, diruak bestelako oihartzun sozialak eta kognitiboak dakartza. Laymi deritzan jendearen adibidea adierazgarria da: Laymi jendeek ez diote dirua haien ordena sozialaren eta kosmologiaren kontra ari denik; alderantziz, diruari "bizitzaren ekarlea" esaten diote, eta oso positiboki kontzeptualizatzen dute haren erabilpen soziala (ikus Harris 1989:247).

Eta azkenik, Harris-ek eta Sallnow-ek nekazaritza eta meataritza Andeetako jendeen pentsakeran bi kategoria desberdin ez direla argudiatu dute. Ondorioz ez da inolaz ere sostengatzen, autore hauek diotenez, meatzarien ideologia (deabruaren kultura, alegia) nekazarien "ekonomia naturalaren" desbideraketaren produktu denik (Harris 1989:251; Sallnow 1989:210). Autore hauen eritziz, meataritzaren eta harri bitxiaren sinesmenak euren ingurugiro kulturean interpretatu behar dira. Areago, Taussig-en merkan-

tziagintzaren interpretazioari aurre eginez, interpretazio kulturalista eskatzen du Sallnow-ek: "merkantziagintzak ezin ditu adierazi meatzaritzaren ideologiaren ezau-garrien xehetasunak (...), meatzaritza bera **per se** ezik, harri bitxien kontzeptualizazio kulturala da erantzuna ematen duena" (Sallnow 1989:218).

Bolivia-ko bi iharduera ekonomiko (hots, nekazaritza eta meatzaritza) parez pare jarri dituzte Taussig-ek eta Sallnow-ek. Euren jakingura, ordea, ez da ekonomia soilean agortu.

Artikulu honen hasieran Aristotele aipatzen genuen, xede bat gogoan genuela: antropologia ekonomikoan ekonomiaren eta gizartearen arteko harremanak aztertzea abiapuntu dela azpimarratzea. Taussig-en eta Sallnow-en saioek ekonomiaren eta gizartearen arteko erlazioak kulturaren bitartez aztertzen dituzte. Hau da, iharduera ekonomiko jakin batean ari diren gizabanakoen ariketa eta praktika kultural batzu erreferentzi-puntu nagusizat hartuta, gizarte-kezkak, asimetriak, hierarkiak, egiturak eta elkartruke ekonomikoen bitartez sortzen edo mantentzen diren alde sozialak azalera datoz, bi azterlari hauen lumak ekarriak. Hala ere, erabiltzen dituzten adierazpideak desberdinak dira. Alde batetik, kolonizazio espainiarraren aurreko Andeetako estatu politiko-hierarkikoen erroto zuten logika kulturalaren ildotik dakar Sallnow-ek bere adierazpena. Beste alde batetik,

ekonomia kapitalistaren logikaren ildotik dakar Taussig-ek berea: merkantziagintza eta merkantzien fetitxismotik, hain zuzen ere.

Andeetako komunitateetan elkartruke ekonomikoen, batez ere diruaren bitartez deabruarekin suertatzen diren elkartrukeek, zer nolako adierazpena daukaten galdetu diete beren buruari autore hauek eta erantzun bana ekarri.

---

### Laburbilduz

---

Handik eta hemendik zenbait adibide ekarrita, saioetako honetan zehar diruaz ihardun dugu, nagusiki diruaren bitartez suertatzen diren elkartuak eta elkartuak balorazio sozio-kulturalak. Teoria ekonomikoak, oro har, ez du bere gain hartu portaera ekonomikoen esangura kulturalak aztertzea. Produkzioa, kontsumoa, artikulu eta merkantzien ibilbidea, ekoizpidea bera, tratuak, elkartrukeak, elkarrekikotasuna, ordaintasuna eta gainerako hitz ekonomikoen erlazio sozialak dihardute. Beste modu batez esanda, gizartearen harremanak kulturalki formulatzen dira, ekonomikoki erroto dira, eta sinbolikoki jendaurratzen dira. Gizabanakoen beren harremanetarako erabiltzen dituzten sinboloak eta gizabanakoen artean ematen diren erlazioen funtsa aztertu gabe egiten diren estudio ekonomikoen ezer gutxi kontatzen digute gizarte hiritarren zein bestelakoen antolamenduak. Askoz gutxiago kontatzen digute bertan bizi diren jendearen arazoen eta arazo horien aurre egiteko litezkeen irtenbideez.

---

## Erreferentziak

---

- 1.- BOHANNAN, P. "The Impact of Money on an African Subsistence Economy". *Journal of Economic History*, 1959.
- 2.- CARSTEN, J; "Cooking Money: Gender and the Symbolic Transformation of Means of Exchange in a Malay Fishing Community". *Money and the Morality of Exchange*, Parry J. and M. Bloch (eds). Cambridge University Press, 1989.
- 3.- HARRIS, O. ; "The Earth and the State: The Sources and Meanings of Money in Northern Potosí, Bolivia". *Money and the Morality of Exchange*, Parry J. and M. Bloch (eds.). Cambridge University Press, 1989.
- 4.- Parry J. and M. Bloch (eds.) *Money and the Morality of Exchange*, Cambridge University Press, 1989.
- 5.- POLANYI, K. "Aristotle Discovers the Economy" . *Trade and Markets in the Early Empires*, Polanyi K., C. Arensberg, and H. Pearson (eds.), 1957.
- 6.- SALLNOW, M.J. "Precious Metals in the Andean Moral Economy". *Money and the Morality of Exchange*, Parry J. and M. Bloch (eds.). Cambridge University Press, 1989.
- 7.- TAUSSIG, M.T.; *The Devil and Commodity Fetishism in South America*. University of North Carolina Press.